

>> Web-orria

posamenak, eta oraingoan ere halaxe egin dugu.

Interes gehien sortzen duen atala elikadurarena da. Hori dela eta, aurten tarte berezia egin diegu sukaldeko errezetei; irakurleei oso egokia iruditu zaie apustu hori egin izana, ez alferrik % 40,7k aipatu dute atal guztien artean.


Osasunaren inguruko artikuluak ageri dira bigarren lekuan irakurleen interesetan, baina ez dituzte aipatu 2011ko portzentajee-tan, eta berdin gertatzen da aldizkariaren azala eta orrialde nagusiak hartzen dituzten ikerketekin ere. Zalantzarik gabe, joera horiek adierazten dute nondik jo behar duen EROSKI CONSUMERek etorkizunean, ahaztu gabe, dena den, badirela irakurleek oso gogoko dituzten beste atal batzuk ere eta horiei ere arreta jarri behar zaiela; hor daude, esaterako, bidaien inguruko informazioa eta aldizkariaren atal gorenari dagozkionak: nutrizioa eta elikadura.

1998. urteaz geroztik, papereko aldizkaria Interneten ere aurki dezake irakurleak, kontsumitzaileak informatzeko www.consumer.es helbidean. Web-orria abian jarri zen garaian, paperezko aldizkariaren Interneteko bertsioa baizik ez zuen eskaintzen, baina, poliki-poliki, hornitu eta osatu egin da edukiz, eta bere arloan nagusi izatera iritsi da, egunero-egunero berariaz landutako edukiak argitaratzen dituela informazio-kanal guztietan: Elikadura, Haurtxoak, Brikolajea, Etxeko Ekonomia, Heziketa, Maskotak, Ingurumena, Osasuna, Elkartasuna eta Teknologia Berriak.

Inkestan bildu ditugun datuen arabera, iaz baino jende gehiagok ezagutzen du web-orria, % 46,4k hain zuzen. Horietako gehienak, gainera, noizbait sartu izan dira, eta 7,2 puntu ematen dizkiote, 2011. urtean eman zioten emaitza berbera.



NOLA DEFINITUKO ZENUKE EROSKI CONSUMER ALDIZKARIA?



EROSKI CONSUMER ZENBAKITAN

- ... 1974: EROSKI Fundazioa aldizkaria argitaratzen hasten da.
- ... 4: Proiektu hau gaztelania, euskara, galiziera eta katalanez argitaratzen da. Paperezko bertsioa dute lehen hiru hizkuntzek.
- ... 1998: orduan jarri zen abian www.consumer.es, kontsumitzaileei informazioa emateko atari espezializatua.
- ... 1.a: kontsumitzaileari informazio emateko sortu direnetan, gure web-proiektua da nagusi herrialde honetan. EROSKI CONSUMERek Done Jakue bideko Gida eskaintzen du, eta sail horretako artean, munduan ez da hainbeste bisita jasotzen duen besterik (www.caminodesantiago.consumer.es/).
- ... 3.500: errezeta kopuru horixe ageri da www.consumer.es/alimentacion/recetas helbidean.
- ... 1 milioi: harpidedun horiek dituzte EROSKI CONSUMERek astero Internetez bidaltzen dituen buletinek.
- ... 1998: web-orrian aurki daitezke 1998. urtetik hona argitaratu diren zenbaki guztiak.
- ... 2011: web-orriko kanalen diseinua berriro zen, eta beste bat erantsi zitzaion (Haurtxoak), eta gizarte-sareetarako jautzia ere orduan egin zuen EROSKI CONSUMERek, Facebook eta Twitter plataformetara, hain zuzen.
- ... 2012: Maskoten gaia sakoan lantzeko kanala sortu da.

EROSKI, gizarte-erantzukizunez jokatzeko duen enpresa

KONPAINIAK BERRITU EGIN DU SA 8000 NAZIOARTEKO ZIURTAGIRIA, GIZARTE ERANTZUKIZUNA ARAUTZEN DUENA



Gizarte Erantzukizunaren arloan ospe eta handiena duen ziurtagiria da SA 8000, nazioartean ematen dena. Lanpostuetan giza eskubideak nola kudeatu zehazten du, eta baldintza guztiak betetzen dituzten eragileek eskuratzen dute, eta horixe lortu du EROSKik, beste behin ere. Horrek esan nahi du enpresak errespetatu egiten dituela Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpen Unibertsala, Nazio Batuen Erakundeak Haurren Eskubideei buruz egindako Hitzarmena, eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak lan-eskubideen inguruan sustatu edo bultzatzen dituen oinarriko akordioak. Agiri horrek, halaber, ziurtatu egiten du enpresak konpromisoa hartzen duela erantzukizun eta balio jakin batzuk eskatzeko hornitzaileei, langileei, kontsumitzaileei eta gizarteari, oro har.

Social Accountability International elkar-teak sortu zuen SA 8000 ziurtagiria, eta 2003. urtean lortu zuen EROSKik lehenengoz (lehen izan zen Espainian eta bigarrena Europan). Orain berriro egin du, eta kanpoko ikuskaritza-enpresa batek egiten duen azterketa zorrotz-zorrotza gainditu behar izan du horretarako. Enpresetako lan-baldintzak hobetzeko helburuz jarri zen abian ziurtagiri hori, eta inor ez dago behartua hori eskuratzerako.

2006. eta 2009. urteetan bezala, orain ere, SA 8000 ziurtagiria berriro ondoren, aitor-tza egiten zaio EROSKlri, lan-munduan ari diren pertsona guztiak aintzat hartu eta haienganako arduraz jokatzeko duela: bazkideak, aldi baterako langileak, azpikontratatuak eta enpresaren hornitzaile direnen langileak ere bai. Eta arau-

di horri esker, bermatu egiten da Asiatik EROSKlra saltzen duten ekoizleek ere giza eskubideak errespetatzen dituztela beren ekoizpen-kate guztian.

Hiru urtetik behin homologatzen da ziurtagiria; EROSKlri aurten egokitzen zitzaion, eta azterketa sakona gainditu behar izan du. Horretaz gain, sei hilabetetik behin, ikuskaritza bat egiten dute –aski zorrotza hori ere– araudia betetzen ari den edo ez egiaztatzeko. Urte bukaeran, beraz, jarraipen-ikuskaritza hori gainditu beharko du EROSKik.

Etika Batzordea

SA 8000 ziurtagiria zela eta, kudeaketa-sistema etikoa ezarri zuen EROSKik lanbait elementurekin, hornitzaileei eta langileei begira. Alde batetik, Etika Batzordea